



3 GIZARTEA

Gazteria saila eta Gazte bulegoa Gaztelekuan lanean

Lasarte-Oriako Udala Gaztelekua martxan jartzeko prozesuan dago. Oraingoz Gazteria saila eta Gazte bulegoa lekualdatu ditu Jaizkibel plazako eraikinera. Hemendik aurrera, bertan eskainiko dute zerbitzua. Beraz, gazteak Gaztelekura hurbildu behar dira orain informazio bila.

4-5 EUSKARA

Ireki bihotza mintzalagunari kanpaina hasiera

Dagoeneko 15 urte dira herrian Udala, Ttakun Kultur Elkarte eta euskalgenien elkarlanari esker Solaskide-Mintzalagun programa martxan dela. Asteazkenean aurkeztu zen ikasturte berria eta bidelagunak eskatu zituen Ttakuneko lehen-dakariak. Euskaldun zaharrak behar dira euskaldun berri edo bidelariekin elkartu eta mintzapraktika egiteko. Solaskideek esperientzia gomendagarri eta polita dela azaldu zuten agerrian.



Lasarte-Oriako langabezia tasa %15-ekoa baino gehiagokoa da. Gipuzkoako eta gure inguruko herrien artean altuenetakoa. Hau ikusita, herriko hainbat langabe batu eta plataforma sortu dute. Astean bitan elkartzeko dira eta egoera honi aurre nola egin aztertzen dute.

Aste honetan Espainiako Lan Ministerioak Estatu mailan urriari dagokion langabezia datuak eskaini ditu. Hauen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia tasa %2,4 igo da, 4.000 bat langabe gehiago batuz. Guztira 168.078 langabe dira gurean.

Gipuzkoan ere langabe kopuruan igoera izan da, 1.255 pertsona gehiago dira egoera honetan, irailarekiko % 2,73ko igoera. Honela, azken urteko joera kontuan izanik, Gipuzkoan % 17,43 hazi da langabezia tasa.

Lasarte-Oriako egoera

Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak irailean argitaratuko datuen arabera, Lasarte-Oriako langabe kopurua 1.342koa zen eta langabezia tasa, berriz, %15,6.

Lasarte-Oriako Udalak egindako "Lasarte-Oria zenbakitan" azterketa sozioekonomikoan agertutako datuen arabera, maiatzean gure herrian %15,7 langabezia tasa zen eta 1.349 herritar lanik gabe zeudenak.

Langabezia, arazo larria

Langabeen herriko plataforma lanean da egoera hobetzeko



Asteazken eta ostiraletan biltzen da herriko langabeen plataforma. Manifestazioa egiten dute Okendo plazatik Manuel Lekuonara.

Langabeak batu

Datuak hobera egin badu ere, Lasarte-Orian langabezia arazoa larria da eta gure inguruan egoera okerrerean dagoen herria da. Honi aurre egiteko hainbat herritarrek Lasarte-Oriako Langabeen Plataforma sortu dute.

Hau asteazken eta ostiraletan Manuel Lekuona kultur etxean elkartzeko da langabeen egoeraz jarduteko eta krisiari konponbidea bilatzeko.

Aurretik 11:00etan, Okendo plazan elkartzeko dira eta bertan elkarretaratzea egin edo elkarrekin herriko kaleetan itzulia burutzen dute aberastasuna eta lan banaketa duina eskatzeko duen pankartekin.

Plataformak urriaren 24an eskainitako prentsaurrekoan taldearen izaera eta gauzatuiko dituen ekintzen berri eman zuen.

Honela, herritarrei jakin arazi nahi izan zieten "ez dugula zer ikusirik inolako alderdi politiko, sindikatu edo eta organismorekin".

Era berean, Plataformak helburu batzuk zehaztu dituela ezagutzera eman zuten.

Batetik krisiaren eragina pairatzen duten kolektibo desberdinei irtenbide laboralak bilatuko dituela.

Eta bestetik, herritar horiei lan munduan txertatzeko heziketa eta gaitasunak garatu ahal izateko erraztasunak ematen ahaleginduko dela.

Ekintzak

Hau guztia gauzatzeko ekintza desberdinak burutzen ari da Plataforma: taldeak sortu ditu herrian autoenplegua eta lan-jarduerak sustatzeko; aholkularitza eskaintzen du eta hainbat erakunderekin bitartekari lana egingo du.

Gizarte aldarrikapena ere izango da Plataformaren eginkizunetako bat. Izan ere, "gure taldeentzat gehiegikeria diren gertaerak salatu eta zabaltzeko ardura hartuko dugu, nahikoa baitute hauek krisiaren zama beraiengain onartzearekin".

Eta salaketekin jarraituz, "organismo publikoek ez digute errazten geure jardueraren garapena," adierazi zuten.

Amaitzeko, herritarrei batez ere, egoera latzanean daudenei asanbladarekin bat egitea eskatu zieten, "gehiago izanda indar handiagoa izango dugu eta lehenago lortuko ditugu gure helburuak".

Era honetara, herritarrei dei egin zieten Plataformak asteazken eta ostiraletan Okendo plazan egiten dituen ekintza edo kultur-etxe bileretan parte hartzeko.



MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian, gure ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Neure kabuz



Jone Miren Hernandez

Euria

Bizikletek gobernatzen dute Kopenhage hiria. Kotxeek, motoretan edota autobusek baino toki gehiago hartzen dute eta semaforo, geldidune zein bidegurutzetan lehentasuna dute. Bizikletek duten protagonismoa harrigarria da bisitari zein turista askorentzat. Udak ezinbesteko aukera ematen du bi gurupilen gainean hiriaz gozatzeko. Baina hotza, euria edota elurra iristean, zer egiten dute bertakoek? Txirringan ibiltzeko duten abilezia eta trebetasuna ikusita (umeek zein helduek) ez du ematen aldizkako erabilitzaileak direnik. Aldiz, une gogorrenetan eguraldiari aurre nola egin dakitela dirudi.

Kopenhagenekin akordatzan naiz askotan gurean lehiotik euria etengabe ikusten dudanean. Euripean jaio, hazi eta ximeltzen gara -klima aldatuta gertatuta ere baina, noraino ikasi dugu horrekin elkarbizitzen? Merkatalguneetara jotzeaz haratago... noraino garatu ditugu estrategiak eguraldi txarrari aurpegi ona jartzeko?

Garai batean asko ziren aterpeekin eraikitako gune zein etxebizitzak. Zumaburun dugu gertuko adibide bat. Ibai ondoko arkupetan paseo luzea egin daiteke babesean. Gaur egun, aldiz, oso gutxi dira horretan erreparatzen duten arkitektoak edota eraikin enpresak. Metro guzti guztiak salgai daude. Bestalde, aterpe azpian gorde ohi direnak (umeak, nerabeak, gaztetxoak...) ez dute beti irudi ona ematen... (soinua, zikinkeria...). Kopenhagen txirringarrentzat bide zoragarriak garatu dituzte eta bertako hiritarrek ezingo lukete euren egunerokotasuna imaginatu horiek gabe. Gurean bidegorriak egiteari ekin diegu -bete ditzagun!- baina aterperik gabeko bizitzari egokitu behar izan gara.

Zorion agurrak



Jose Ignacio

Zorionak aita!!! 39 muxu handi Eneko, Uxue, ama eta familiaren partetik.



Alex

Zorionak guraso, Paula, aitona-amonak eta izeba osabaren partetik!! Muxu pilo!!



Idoia eta Edorta

Zorionak bikote Jalguneko lagunen partetik. Primeran pasa zuen egunak!



Danel

A ze mutil puxka egiten ari zaren. Ondo ospatu zure eguna etxekeko partetik. Muxu pottolo bat.



Siena

Zorionak, prexioxa! Bi urte jada! Besarkada erraldoi bat amatxo eta aita txoren partetik



Malen

Zorionak maitea! Txokomarrubizko 6 muxu goxo zuretzat familiaren partetik.



Carlos

Zorionak zure urtebetetze egunean!! Ondo pasa, familiaren partez muxu handi bat!



Iñaki

Zorionak!! Oso ondo pasa eta gozatu zure egunean. Muxu asko zure familiaren partez!



Hugo

Zorionak mutil handi. Muxu handi bat gurasoen partez!



Aratz

Zorionak!!! Aitaxi, amatxi, Garazi, Noah eta familiaren partez muxu txiki aunitz!!!



Unax

Zorionak zure laguntxo Maite eta Marceren partetik! Tortilla pintxo batera gonbidatu behar gaituzu e! Muxu asko!



Ander

Zorionak etxeko txikiari 18. urtebetetzean!!! Aita, ama eta Eiderren partetik!!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- 116m2-ko aparteko pisu salgai edo alokairuan, lñigo de Loyola, 2. Guztiz berrituta dago. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Sartzeko prest: 639 73 84 13
- Garaje bat dago salgai Lasarten, goikale kalean, 14 m2, pintatu berria eta armairu bat dauka. 5,40 x 2,60 neurtzen du. 25000 eurotan saltzen da eta ikusi daiteke konpromisurik gabe. 670822805. Nerea.
- Etxea alokatzen da Zapategi kalean. 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela ditu. Guztira 85 metro karratu. 636 585 478.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649526766

Lan-eskariak

- Neska arduraduna esperientzia eta erreferentzia onekin ordurako lana bilatzen du, haur, zein pertsona adinduak zaintzen. Harremanetarako, 639 274 396.

- Geriatria laguntzaile heziketa eta pertsonak zaintzen esperientzia duen emakumea eskaintzen da gauetan edo edozein ordutegian ospitalean edo etxean dauden pertsonak zaintzeko. Referentziak eta paperak ditu. Harremanetarako, 647 657 071 edo 696 741 549.
- Ikaslea eskaintzen da arratsaldetan haurrak zaindu edo etxeko lanak egiten laguntzeko. Harremanetarako, 667 731 346.
- Emakumea eskaintzen da haurrak edo pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egiteko orduka edo interna moduan lan egiteko. Harremanetarako, 608 131 170.
- Ume edo aitona-amonak zaintzen, etxeko edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Doris 943 40 40 15
- Geriatria laguntzaileak adinduak zaintzen lan egingo luke. Esperientzia eta tratu ona. 680 983 527 Carlos
- Pertsonak adinduak eta haurrak zaintzeko eskeintzen da emakume bat. Baita etxeko lanak egiteko ere. Telefono: 677188189/ 632433769

- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanetarako edota nagusien zaintzarako. Asteburuetan lan egiteko prest. Azucena 669 931 026
- Emakume bat eskeintzen da adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko, etxeko lanak eta tabernetan garbitze lanak egiteko. Telefonoa: 667808011
- Neska haurrak zein nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo lituzke. Paperak ditu. Berta 676 244 793
- Mutil gaztea lan egiteko prest. Edozein lanetan arituko nintzateke garbiketa, banatzaile lanak, zaintzaile. Ledy's 602364395
- Emakumea eritexean gauak pasa, nagusiak haurrak zaindu edota garbiketa lanetan aritzeko prest, orduka, goiz edo arratsalde. Erreferentzia onak 619 803199

Bestelakoak

- Pisukidea bilatzen da logela bat betetzeko. Etxebizitza Zabaleta auzoan dago kokatua. Pisukideak gazteak dira. Gastu guztiak barne, 250 euro. Harremanetarako, 635 20 55 61, Ane.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Ainhoa Zubizarreta Usabiaga, azaroaren 2an.
- Carla eta Nora Gutierrez Villa, urriaren 31an.
- Adriana Lara Iglesias, urriaren 24ean.
- Aintze Tabuzi Zelarain, urriaren 21ean.
- Arham Khan Begm, urriaren 18an.

Heriotzak

- Benito Perez Somoza, urriaren 27an, 75 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 9 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 10 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 11 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 12 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteartea, 13 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 14 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 15 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chula, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

GAZTELEKUA

Gaztelekuan lehen urratsak eman dira

Gazte bulegoa martxan da egoitza berrian ohiko ordutegian



Gazteria saila eta Gazte bulegoa Gaztelekura lekualdatu dituzte eta dagoeneko martxa hartu du

Gaztelekua martxan jartzeko pausuk ematen hasi da Lasarte-Oriako Udala. Hilabete honetan Gazteria saila Manuel Lekuona kultur etxetik Gaztelekura mugitu eta saileko arduradun eta teknikariak bertan daude dagoeneko lanean.

Udalak jakitera eman duenez, astean zehar goizeko ordutegian izango dira bertan lanean.

Aurrekariak

Taxio Arrizabalaga Gazteria batzordeburuak, orain hilabete batzuk azaldu moduan, proiektu estrategikoa eta oinarritzakoa du udal gobernuak Gaztelekua "gazteekin zerikusia duten politikak gau-

zatzea da nire helburu nagusietako bat eta testuinguru horretan Gaztelekua sartuko nuke".

"Nire lehentasunetako bat Gaztelekuaren proiektua ondo garatzea da eta honekin lortu herriko gazte guztiarentzat gune dinamiko bat. Ezinbestekoa ikusten dut gazteak bilduko dituen espazio hori sortzea".

Gazte bulegoa

Horrela izanda, udal langileak bertara eramateaz gain, Gazte Informazioarako Bulegoa, orain arte Manuel Lekuona kultur etxeko 3. solairuan zegoena, lekuz aldatu dutela ere jakitera eman dute.

Gaztelekuan, Jaizkibel plaza

zako 13. zenbakian egongo da aurrerantzean zerbitzu hau eta lehenengo ordutegi bera mantentzen du. Hau da, asteleheneetik ostiralera, 11:00etatik 13:00ra eta 16:00etatik 19:00era dago zabalik.

Bertan ikastaroak, lana, aisia, ikasketak, bekak, edo gazteentzako txartel bereziei buruzko informazio guztia jaso dezakete bertara gerturatzaren diren gazteek.

Gainontzean, udal ordezkariak aurreratu dutenez, hau da oraingoz Gaztelekuan martxan dagoen zerbitzu bakarra, baina gunea abiatzeko proiektua lantzen bukatzen ari dira asteotan eta denbora gutxi barru izango da honen berri.



LIBURUTEGIA

Peio Añorgarekin liluratuta

Haur liburutegian ipuinaren ordua egitarauarekin jarraitzen dute. Aste honetan, asteartean, Pello Añorga idazlearen bigarren saioa izan zen. Haurrak guztiz murgidu ziren ipuin kontalariaren istorioan. Gainera asteartekoan asko izan ziren liburutegira gerturatutakoak.

Pello Añorga ipuin idazlea, irakaslea eta ipuinen munduari buruzko jakintsu izatez aparte kontalaria da. Diote haurren hipnotizatzailea dela kontalaria baino eta hala izan zen. Haur liburutegian bildutako txikiek aho zabalik entzun zituzten Añorgaren istorioak.

Bere ahotsa eta kontakizuna izan ziren erabilitako tresna bakarrik eta abestiekina batera umeak oso parte hartzaile azaldu ziren besteak beste gogoz abestuz. Horrela ordu betez haurrek fantasiako mundu batera eraman zuten euren irudimena.

IKASTAROA

Euskal jantzigintza ikastaroa hasi da

Ttakun Kultur elkarteak antolatutako euskal jantzigintza ikastaroa asteartean hasi zen.

Euskal jantzi tradizionalak nolakoak diren ikusi eta gero bakoitzak berea egiteko aukera du ikastaro honetan eta aldi berean euskara praktikatzeko da.

Ikastaroaren arduradunak jakitera eman duenez, leku libreak daude ikastaroan. Honi buruz informazio gehiago eskuratu edo parte hartzeko ikastaro egunetan Erribera kaleko lokalera gerturatu edo Ttakun kultur elkartera deituz, 943 371 448, eskuratu dezakete herritarrek.

Saioak astearte eta ostegunetan 15:00etatik 17:00etara dira eta Jone Artola da irakaslea.

PRESOEN LAGUNAK

Presoen aldeko flashmob-a

Presoen lagunak taldeak aurtan ere eguberrietan preso politikoaren egoera ezagutarazteko ekitaldiak antolatuko ditu. Horien artean, ekintza berezi bat dago, abenduaren 23an Okendo plazan egingo den flashmob-a, hain zuten ere.

Flashmob-eko entseguak hasi dira dagoeneko. Asteartean, izan zen lehena Villa Mirentxu ondoko trinketean. Bertan herriko hainbat esparruetako eragileak bildu ziren dantza ikasketako eta ederki moldatu ziren azalpenak jarraikiz.

Presoen lagunak taldeak entsegu grabatu zuen eta youtube bera igotzeko asmoa du herritarrek dantza ikasi eta ekimen berezi honetan parte har dezaten.

Taldeko kideek aipatu digutenez, entsegu gehiago izango dira aste hauetan eta abenduaren 18an entsegu orokor bat egingo da. Azaroaren 13an, esate baterako, gazte koadriletako kideei trinketera hurbiltzeko gonbita egiten diete.



Memoriaren eguna ospatzeko eskaera

Memoriaren eguna izango da bihar larunbata, azaroaren 10a. Eusko Legebiltzarra 2010. urtean egun hau izendatu zuen hain juxtu "terrorismoaren biktimen oroimenerako eta omenaldirako" eguna.

Lasarte-Oriako udalak 2010. urteko irailaren 9an ospatutako udalbatzarrean honako egunarekin bat egiteko adostasuna hartu zuela gogoratu nahi izan dio Jesus Zaballosek alkateari bidalitako oharrean.

Honekin batera iaz ere egun honekin bat egiteko eskaera luzatu eta udal gobernuak ez zuela ezer egin leporatzen dio Barriari idatzian. "Udaleko talde sozialistak soilik egin zuten ekimen berezia egun honetan biktimak gogoratuzeko".



laz herriko PSE-EEko ordezkariak lore eskaintza egin zuten Askatasunaren parkean.

Lore eskaintza

Iaz udaleko PSE-EE taldeak omenaldia egin zuen Askatasunaren plazan. Bertan Jesus Zaballok Lasarte-Oriako sozialisten buruak, kide eta zenbait herritarren babesarekin, biktimen omenezko aldarria irakurri zuen eta lore eskaintza burutu zuten ondoren.

Iazko omenaldian ere

gogor salatu zuen Zaballosek udalaren jarrera eta memoria aldarrikatu behar dela adierazi zuen, "terrorismoak eragindako biktima eta familien mina ezin dugu ahaztu eta beraiekin gaudela gogoratu nahi diegu. Ez ditugu ahaztuko askatasuna eta demokraziaren alde lan egiteagatik bizia eman dutenak".

Ireki bihotza mintzalagunentzako, izan bidelagun

► Bidelagunak bilatzen ditu Ttakun elkarteak ikasturte berri honetan talde gehiago osatu ahal izateko ► Bildutako solaskideek esperientzia probatzera animatu nahi izan dituzte herritarrak

Ttakun elkarteak Udalen euskara sailaren laguntzarekin burutzen duen solaskide-mintzalagun programa aurkeztu zen asteazkenean Jalgi Kafe-Antzokian. Euskaldun berriak euren mintzapraktikan laguntzeko prest dauden bidelagunak behar dira ikasturte berriarako. Herritarrak honetan parte hartzeraz deitu nahi izan zituzten. Guz-tira iaz 101 lagun izan ziren solaskide.

Maidar AZURMENDI

Boris Nogales udaleko euskara batzordeburuak, Tomas Arrizabalaga Ttakun elkarteak lehendakariak, Aitor Uriarte Ttakuneko kudeatzailea eta Junkal Perezek, solaskide programaren arduraduna Ttakunen, agerraldia egin zuten asteazkenean Jalgi Kafe Antzokian Solaskide-Mintzalagun programaren ikasturte berria aurkezteko.

Honen helburua euskaraz hitz egiteko oihutza duten herritarrak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzea da, bai euskara maila hobetzeko, hizkuntza bera gehiagotan erabiltzeko oihutza lantzeko edota euskaraz bizitzeko. Euskara esparru guzietan erabiltzeko pausoa ematen laguntzen du Solaskide programak.

Aurten Euskararen Maratoia tarterko apur bat atzeratu du elkarteak kanpaina hasiera "nahiz eta solaskide taldeak dagoeneko lanean diren" arduradunek azaldu moduan. Eronka herririk elkartearantz euskaldun berriak euren mintzapraktikan lagunduko dituzten bidelagunak topatzea da.

Boris Nogales udaleko euskara batzordeburuak hartu zuen hitza lehenik. Honen eransetan 15 urte dira Ttakun elkartearekin eta herriko euskaltegiekin martxan jarri zela kanpaina hau euskaltegiko formakuntza osatzeko helburuarekin baina lortutakoa "askoz gehiago da, bidelariak hurreman berriak sortzen, dituzte, lagunak egiten dituzte



eta esparru honetan euskaraz mintzatzen dira" eta udaletik prozesu honi garrantzia handia ematen zaiola.

Gainera erakundeen arteko elkarlana baloratu zuen zinegotziak, "guztiek euskararen esparruan norabide berdinean arrau egitea garrantzitsua delako".

101 erabiltzaile

Ttakuneko lehendakariak Tomas Arrizabalagaren lehenik eskerrak eman nahi izan zizkien Solaskide guztiei, izan ere iaz erabiltzaileak 101 izan ziren, 33euskaldun zahar edo bidelagun eta 88 bidelariak edo euskaldun berriak. Dagoeneko 30 dira lanean jardun diren taldeak eta kopurua handitzea da elkartearen nahia.

Honekin batera elkarteak euskaldun zaharrak bilatzen dituela eman zuten aditza "euskaldun berrien aldetik eskaera badago, honi erantzuten ari emateko beharrezkoak ditugu bidelagunak, esperientzia polita da eta hemendik herritarrak parte hartzeraz animatu nahi nituzke".

Talde desberdinak daude Junkal Perezek esan bezala, "taldeka edo bakarka aritzen

dira euskaldun zahar eta berriak. Talde eragile bat ere badago afariak eta ekintza ezberdinak antolatzen dituen eta horretaz gain, ostegunetan talde librean elkarlana elkartzen da. Azken honetan edonork har dezake parte".

Federazioarekin

Lehenengo urtea da kanpaina Topagunea euskara elkarten federazioaren baitan egiten duela Ttakun Kultur Elkarteak. Kanpainen leloak dion moduan "ireki bihotza mintzalagunentzako, hori da behar duguna herrian talde gehiago osatzeko".

Aurten herrian Euskararen Maratoia tarterko kanpaina hasiera atzeratu egin dela azaldu zuten, nahiz eta honen baitan aurkezpen bat ere egin zen solaskideekin egitasmoa ezagutzera emateko.

Uriarte azpimarratu nahi izan zuen solaskideen artean

lagun harremanak sortzen direla gehienetan. Bestalde bidelari izandakoak bidelagun izateko gai dira prozesua amaitzen eta zenbaitetan ikastaroak ematen dituzte besteak beste. "Espazio erakargarri gehiago sortu nahi ditugu solaskideentzat, dantza eta antzerkiaren gain beste esparru batzuk landu".

Solaskide izateko hori bai, euskaraz komunikatzeko maila minimo bat eskatzen da izan ere, hizkuntzaren ikasketan laguntzeko ekintza osagarri bezala ulertzen da. Horregatik jotzen da euskaltegi-taldea honen berri ematera Junkal Perezek azaldu moduan.

"Ikasleek mingaina askatzeko balio du baina baita esparru eta inguru euskaldun bat ere osatzeko" izan ere, eskolan lagun, familia eta lan harremanak gaztelaraz eratu daude eta zaila egiten da

hauek aldatzea. Hala ere, bidelariaren gogoan datza harremanak euskaraz egitea.

Esperientzia polita

Solaskideek ere eskerrak eman nahi izan zituzten euren jasotako laguntzagatik Elena Aburuzak azaldu moduan.

Berak urtarriean urte bete egingo du bidelari bezala eta denbora honetan euskaraz hitz egiteko esparru berriak eratu dituela azaldu nahi izan zuten.

Lagun batekin animatu zuten bere euskara hobetzeko solaskide programan hastea eta "ez nuen urte urte betearen halakorik lortuko nuenik, euskaraz hitz egiteko eratzasun gehiago daukat eta jende batekin nire egunerokoan euskaraz egiten dut dagoeneko, hobekuntza izugarria izan da niretzat".

Esperientzia oso polita da berarentzat bizitzen ari dena eta herritarrak honetan parte hartzeraz animatu nahi izan ditu "ederki pasatzen dugu eta guztiz gomendagarria da euskaraz trebatu eta akatsak egitearen beldurra gainditzeko. Pausoa ematera animatuko nituzke".

Gloria Crespo Bidelaria

"Solaskide izatea oso esperientzia aberasgarria da bi aldeentzat"

Kalean, familian eta lagun artean euskaraz bizitzeko gai da eta Solaskideri esker da

Hiru urte dira Gloria solaskide programan izena eman zuela. Bere bidelaguna hori baino gehiago da egun, laguna. Astean behin elkartzen hasi ziren baina ondoren, biek adosten dituzte egunak eta orduak. Esperientzia guztiz positiboa izan da Gloriarentzat eta egun bere lanean ere euskaraz mintzatzen da. Pauso handia izan da hau berarentzat, euskarategian hasi zenean zail ikusten zuen urratsa.

Gloria Crespok ez zuten urte euskaraz bere eguneroko hizkuntza bihurtuko zenik. Euskarategian zegoela izan zuen Solaskide programaren berri eta honek pausoa ematera animatu zuten.

Nola izan zen Solaskide programarekin lehen harremana?

Euskarategian entzun nuen mintzapraktika egiteko talde batzuk zeudela herrian. Honen inguruan informazio gehiago eskatu nuen eta izena ematera animatu nintzen. Hasieratik nahiko argi ikusi nuen halako laguntza zela nik behar nuen. Dagoeneko hiru urte egin ditut bidelari bezala.

Aspaldi ari al zinen euskara ikastean?

Lana tarterko ez ditut urte asko eman euskarategian.

Osoak hiru ikasturte egin nituen eta hitz egitea zen falta zitaidana. Nire helburua hasieratik euskaraz hitz egiten ikastea izan zen eta euskarategian gramatika eta idazkuntza landu ostean, hori lortzeko zerbait gehiago falta zitaidala ikusten nuen.

Nola izan zen hasiera Solaskide bezala?

Lehenengo Ttakuneko Solaskide programaren arduradunarekin izan nuen

elkarrizketa bat. Berak nire maila neurtzeko izan zen eta horretaz gain nire lana eta zaletasunengatik galdetu zidan. Hauek ezagutzea garrantzitsua zela azaldu zidan izan ere, bidelagun egokia topatzea ia bikotea bilatzea bezala zen. Bion artean harremana ona izatea funtsezkoa zela aipatu zidan.

Egia esan oso lan ona egin zuten gurekin. Nire bidelaguna, euskaldun zaharrek, hasieratik primeran moldatu nintzen.

Arantza eta biok egun lagunak gara eta lagun bezala gertzen gara. Hasieran astean ordu bete gertatzen ginen baina asteak aurrera joan ahala guk finkatzen genituen gertatzeko egunak, ordu kopurua etab. Adibidez ikasturtea ekainean amaitzen da ofizialki baina guz uztaillean eta abuztuan ere gertatu izan gara.

Hiru urtetako prozesua nola izan da?

Niretzako oso ona, primerakoa. Arantzarekin banaka egin dut prozesua baina antzerkian ere parte hartu dut. Orain ez naiz joaten denbora faltagatik baina oso esperientzia ona izan da euskaraz halako ekintza bat burutzeko gai izatea. Asko animatzen zaitu, ikasten ari zarenean, euskaraz ondo hitz egiten duzula entzutea.



Nik badakit asko hobetu dudala baina oraindik akatsak egiten ditut. Nire bidelagunak akatsak euskaldun zaharrek ere egiten dituztela esaten dit eta animo horiek asko laguntzen dute.

Askotan hanka sartzeko beldurragatik ez duzu euskaraz hitz egiten eta konplexu hori gaineratzen da garrantzitsua. Hori gaitortuta, euskaraz bizitzeko gai zara.

Zailtasun asko izan al dituzu prozesuan?

Aipagarria da euskalkiena. Guk euskara batua hitz egiten dugu eta herri bakoitzak bere hizkera dauka. Hasieran ez ulertzeko beldurra daukazu eta oso deseroso sentitzen zara baina azkenean, hizkera mota hauek arrotzak gertatu arren, garrantzitsua da hauekin harremana izatea. Asko aberasten du gure hizkera.

Bestalde jende batekin harremana beti gaztelaraz izan bada, hori aldatzea zaila egiten da. Baina gogoia jarrita aldatzea posible da.

Amorru handia ematen dit euskaldun zahar batekin euskaraz hitz egiten hasi eta zula zela ikustearen, gaztelaraz joteko aukera ematen dizunean "nahi baduzu esan gaztelaraz" Ez! ez dut gaztelarera pasa nahi, niretzat zaila izan arren euskaraz nahi dut azaldu eta batzuetan jende bati kostatzen zaito gure jarrera hau ulertzea.

Niretzat funtsezkoa da normalizazio prozesuan sortzen diren zailtasunak gainditzeko jakitea, nahiz eta akatsak egin edo loia sentitu.

Zure eguneroko bizitzan euskaraz erabiltzen al duzu?

Esparru guzietan oraindik ez baina bai gehienetan. Orain gutxi hasi naiz ere nire lana

euskaraz egiten, "posturologia" naiz eta duela gutxi arte lotsa bezala ematen zidan nire laneko azalpenak etab. euskaraz ematea ziurtasun faltagatik agian. Ikastaroak ematea ere suertatzen zait eta Leiztan egindako batean hasiera eman nion nire jarduna euskaraz egiteari. Uste baina hobeto moldatu nintzen eta oso pozik naiz.

Gainontzean, familian eta lagun artean harremanak beti izan dira gaztelaraz nahiz eta lagunen artean euskaldun zaharrak egon. Horiakin euskaraz hasten naiz baina beste batzuek ez dakitenez, azkenean gaztelaraz hitz egiten bukatzen dugu. Hala ere, Solaskideri esker egindako lagunekin euskaraz hitz egiten dut eta udala zein bestelako erakundeetara jotzerakoan ere euskara da erabiltzen dudana lehen hizkuntza.

Ikastaro bat ere egiteko asmoarekin zbiltza...

Bai Junkali proposatu diot nire lanarekin lotuta "Gorputz jarraitaren heziketa" posturen inguruko ikastarotxoak ematea eta data zehaztekoan gaude. Gogo handia daukat solaskideekin haur egiteko.

Solaskide izatera animatuko al zenituzke herritarrak?

Noski! esperientzia bikaina da, bi aldeentzat oso aberasgarria. Nire kasuan behintzat lagun on bat egin dut eta honi esker gai naiz euskaraz bizitzeko. Hau gabe oraindik ez nintzen asartuko kalean euskaraz normaltasunez hitz egitea. Esperientzia probatu behar da.

ANAIAK

JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEGATIK LIKIDAZIOA!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

TXIRRINDULARITZA.-



Basaundi-Leitza bizikleta irteera

Basaundi bailaratik Leitzarako txirrinda irteera egin zen azaroaren 3an.

Txirrinda irteerako antolatzaileek azaldu digutenez, aurten 14 izan dira Lasarte-Oria eta Leitza artean dauden 60-70 kilometroak egingo dituzten herritarrek.

Goizeko 8:30ean abiatu ziren herritik eta Leitza hamaiketako ordurako iritsi ziren. Mokadu bat hartu eta indarrak pixka bat berreskuratuta, Lasarte-Oriara egin zuten buelta.

Izan ere, Buruntz Azpi elkartearen zain zuten paella gozoa bazkaltzeko.

Bazpi txirrindularitza eskola lanean

Bazpi Txirrindulari Eskola kirol denboraldi berriari ekingo dio bihar, azaroak 10, goizeko 11:00etan Atsokabarren.

Eskolako arduradunek jakitera eman dutenez, 2001-2000 eta 1999-2000 urteetan jaiotako kirolarientzako mugatzen da deialdia.

Azaroa, abendua, apirila eta maiatzeko larunbatetan elkartuko da taldea Atsokabarreko parkean, beti ere, aurreko ostirala jai eguna ez bada, orduan ez da saiorik izango.

Aipatu dutenez, bihar banatuko dituzte izena emateko orriak eta guraso edo tutoreak beteriko orriak Bazpi eskolak kudeatuko ditu.

OHARRAK.-

Ostadarreko loteria

Ostadar Saiarre Kirol Taldearen gabonetako loteria elkartean bulegoan, Geltoki 25, eta Aldatzekua tabernan salgai dago dagoeneko eta nahi duenak eskura dezake. Kirol taldearen zenbakia 65667 da.

ARETO-FUTBOLA.-

Herriko Areto futbol txapelketako XXX. edizio gaur hasten da

Hamalau talde lehiatuko dira txapelketako ikurrina lortzeko

Urteroko hitzorduari huts egin gabe, gaur arratsaldean Ostadar SKT-k antolatzen duen areto-futboleko txapelketarako hasiera emango zaio. Aurten 14 talde izango dira buruz buru eta iazko irabazlea den Buenetxea tabernari txapelketako ikurrina kentzea izango dute helburu.



Kirol guneko areto-futboleko pistan herriko taldeen arteko partidak ikusi ahaliko dira.

Nerea EIZAGIRRE

Ostadar SKT-k antolatzen duen Herriko areto-futbol txapelketa gaur hasiko da kirol guneko areto-futboleko pistan. Denboraldiko lehen partidaren Indaux eta Balerdi izango dira aurrez aurre.

30. edizio honetan 14 talde lehiatuko dira eta Imanol Azkuek txapelketako ordezkariak azaldu digunez ez da talde beririk izango, nahiz eta batzuk izenez aldatu diren.

Honela Indaux, Balerdi Harategia, Txindoki, ISU Leihoak, El Punto taberna, Ana eta Soi ileapaindegia, Albañileria Vertical, Trumoi

taberna, Izarra bitxitegia, Ori kristaldegia, Ilargi taberna, Buenetxea taberna, Urdaneta Hertz Klinika eta Izkiña taberna izango dira aurten txapelketan parte hartuko duten taldeak.

Hauen artean, noski, iazko garailea Buenetxea eta bigarren sailkatua Txindoki aurkitzen dira.

Lehenengo fasea

Txapelketako antolatzaileek azaldu digutenez, ohi bezala txapelketak bi zati izango ditu.

Batetik, lehenengo fasea izango da. Hau liga formatuan jokatu da, hau da, guztiak guztien aurka eta

talde kopurua dela eta, itzuli bakarrera izango da.

Partida guztiak Michelin goi kirol gunean jokatu dira ostirala arratsalde eta larunbata goizetan. Aste honetako partidak beheko kirol agendan ikusi daitezke.

Final handia

Lehen fase honetako zortzi lehenak play-offerako sailkatuko dira eta kanporaketa sistema erabiliz, maiatzean jokatu den finalerako txartela bilatuko dute. Gainontzeko taldeek ligaxka jokatu dute.

Txapelketako antolatzaileek herritarrek animatzen dituzte partidak ikustera.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 10

Michelin, 10:30ean

Ostadar-Billabona

Jubenilen Ohorezko maila

Zubipe, Hernani, 10:30ean

Hernani-Ostadar

Infantilen Ohorezko maila

Michelin, 12:15ean

Ostadar-Alaves

Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga

Michelin, 15:30ean

Ostadar-Astigarragako Mundarra

I. Kadetea

Michelin, 17:15ean

Ostadar-Euskalduna

I. Erregionala

Igandea 11

Altamira, Ordizia, 09:30ean

Beasain-Ostadar Alebina

Asti-Txiki, Zarautz, 10:00etan

Zarautz-Ostadar Infantil Txikiak

Michelin, 10:30ean

Ostadar-Antigua Luberrri

I. Jubenila

Alustiza, Segura, 11:30ean

Segura-Texas Lasartearra

I. Erregionala

Artia, Irun, 12:00etan

Irun Artia-Ostadar

Emakumezkoen maila

Zubipe, Hernani, 12:00etan

Hernani-Texas Lasartearra

I. Kadetea

Garmendipe, Azpeitia, 16:00etan

Lagun Onak-Ostadar

Erregional Ohorezko maila

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 09

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

19:40ean, Indaux-Balerdi Harategia

20:30ean, Txindoki-ISU Leihoak

21:20ean, El Punto-Ana eta Soi ileapaindegia

Larunbata 10

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

10:30ean, Albañileria Vertical-Trumoi

11:30ean, Izarra-Oria kristaldegia

12:30ean, Ilargi-Buenetxea

13:30ean, Urdaneta H.K.-Izkiña

Kiroldegia, 16:00etan

ISU Leihoak-Azpeitikoko

Gipuzkoako Liga, I. maila

Igandea 11

Aritzabalde kiroldegia, 12:30ean

Zarautz-Aldaz H.K. Nazional III. maila

PILOTA

Ostirala 09

Madalensoro, Oiarzun, 19:15ean

Oiarpe I-Intza

Eskuz binaka, I. jubenila

Madalensoro, Oiarzun, 19:15ean

Oiarpe-Intza I

Eskuz banaka, jubenila

Larunbata 10

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Gazteleku

Eskuz binaka, II. kadetea

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Eibar

Eskuz binaka, II. jubenila

Andoain, 17:00etan

Gazteleku 2-Intza

Eskuz banaka, infantilak 1. urtea

Igandea 11

Hernani, 10:30ean

Hernani 5-Intza

Eskuz banaka, infantilak 2. urtea

ATLETISMOA

Larunbata 10

Hernani, 10:30ean

Landaberri eta Sasoetako alebin eta

infantil mailako gaztetxoek pistako

eskolarteko lehiaketako proba

libreak dituzte.

Igandea 11

Behobia, 10:30ean

Herriko hainbat atleta 48. Behobia-

Donostia proban parte hartuko

dute.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 11

Antonio Eiorza belodromo, Donostia,

11:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako

gazteek Gipuzkoako pistako

txapelketako lehen jardunaldia dute.

ERRUGBYA

Larunbata 10

Azti, Zarautz, 12:00etan

Beltzak Ostadar Jala-La Rioja

Infantil federatua

Ordizia, 15:00etan

Ordizia-Beltzak Ostadar Jala

Kadeteak

Igandea 11

Eibar, 10:30ean

Beltzak Ostadar Jalaia Errugby

eskolako alebin eta benjaminek

topaketa dute.

Azti, Zarautz, 11:00etan

Beltzak Ostadar Jala-La Unica

Eskolarteko infantilak

Agenda

Larunbata 10, 20:00etan, Manuel Lekuona Kultur-etxea



Elkarrizketa sekretuak su txikian

"Su Txikian" antzerkia eskainiko du Glu-Glu produkzioak. Galder Peregzen antzezlanak azken hamarkadan euskal gatazka konpontzeko egindako sukalde lana aurkezten du. Besteak beste, Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurenek elkarrizketa sekretuak edo politikari sozialistek ETAko ordezkariekin Genevan eta Oslon izandako ezinbesteko negoziazioak taula gainera daramatza. Sarrerak leihatilan 12,6 euro; interneten 12 euro. Euskaraz.

MENDI KAFE-ROCK

Larunbata 17, 20:00etan

Iker Piris-en blues eta funk doinuak entzuteko aukera. Kultur kale zikloaren barruko ekintza.



Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astelehena 19-Osteguna 22

Lasarte-Oriako Udalak antolatuta Osasun jardunaldiak antolatu dira. Eguneroko osasun arloko aditu batek eskainitako hitzaldi interesgarria entzun ahalko da.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 16, 20:00etan

Kukai dantza taldeak eta Tanttaka antzerki taldearen eskutik, "Otehitari biraka" emanaldia. Dantza, musika, poesia, bideoa eta beste hainbat osagarri izango ditu ikuskizunak. Sarrerak leihatilan, 6 euro; internetez, 5 euro.

Larunbata 17, 18:00etan

"Ninika" haurrei zuzendutako dantza emanaldia eskainiko du Elirale taldeak. Familia osoarentzat aproposa. Sarrerak leihatilan, 3,2 euro; internetez, 3 euro.

Ipuin Kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astelehena 12, 18:00etan

Kontu Kantoi-ko lagunek hitza eta irudiaren bidez 6,7 eta 8 urteko haurrei ipuin liluragarriak kontatuko dizkiete.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 11, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "Los cachorros y el código de Marco Polo" filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz

Igandea 11, 19:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, "Intocable" filma eskainiko da Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,50 euro; internetez, 5 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 18, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "¡Piratas!" filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.



Osteguna 22, 21:30ean

Ostegun zinea atalaren barruan, "Melancolía" filma eskainiko da Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 4,40 euro; internetez, 4 euro. Gaztelaniaz.

Musika

ORBELA BELARDENDA

Ostirala 9, 19:30ean

Oskar Benas-en kontzertu akustikoa entzuteko aukera izango da. Kultur kale zikloaren barruko ekintza.

SIGLO 20

Larunbata 10, 19:00etan

Orto Rock Festibala antolatu dute. Honetan, Keep Diggin, Sony Crocket eta talde sorpresa bat izango dira Siglo 20 tabernako eszenatokian, baita Orto Brothers Dj's-en saioa ere 00:00etatik aurrera. Kultur kale zikloaren barruko ekintza.

Herritarren txokoa

Euskararen 8. Maratoian aurkitutako gauzak

Euskararen 8. Maratoia amaitu eta garbiketa lanetan, honako gauza hauek aurkitu dira Okendo plazan zegoen karpan: atril bat, 2 jertse, Obrint pas taldearen txapa duen txaketa bat eta aterki bat.

Gauza hauen jabeak Ttakun elkarretik hurbil daitezke hauek jasotzera.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak, ezkontza eraztuna, eguzkitako betaurreko, bi telefono mugikor, MP3 bat, mikrotxipak dituen plaka bat eta emakume beroki bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiak eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Korrika egiteko talde amateurrak

Lasarte-Oriako korrika egiteko talde amateurrak sortu nahi dira. Lehenengo urratsak!!

Hitzordua, ateri dagoen astelehenetan 20:00etan Hipodromoko zubian. Barrazkilo eta bareak animatu!

Marrakiz eta margo klaseak

Lasarte-Oriako auzo elkarteak antolatzen duen marrakiz eta margo ikastaroko klaseak eskaintzen dira Manuel Lekuona kultur-etxean.

Hauek astezken eta ostiraletan dira, 18:30ak eta 20:30ak bitartean Manuel Lekuonako 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Iradokizunak Udalari

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Eskutitza

Gazte, batu zaitetz gazte Zukgura

Badira hilabete batzuk herriko gazteak gure garuna zukgutzen hasi ginel. Euskal Herriko gainerako herrietan bezala, eztabaida prozesuari ekin diogu Lasarten ere dagoeneko.

Lehenengo, egoeraren azterketa orokorra egin genuen Villa Mirentxun egindako asanblada jendetsuetan. Ondoren, bloke hau bukatzeko ekintza bat burutu genuen, guk eztabaidatutako kalera eramanez.

Horrela, bankuz banku ibili ginen salaketa sinbolikoak eginez. Izan ere, eztabaidetako ondorio izan zen gizarte patriarkal kapitalistak eragiten digula gehien eta ondorioz, bankuak direla gure etsai nagusiak. Eta zehazki Erraustegiaren finantzaketan La Caixa duen ardura, Kutxa edo Kutxabankek etxe kaleratzeen gaian duen jarrera eta Santander nahiz BBVA bezalako banku handien jarduna salatu genituen.

Ilusioz ari gara antolatzen eta borrokatzen eta honi jarraipena eman asmoz, larunbat honetan, hilak 10,



11:30etan Villa Mirentxun, 2.blokea eztabaidatzei ekingo diogu, azterketa orokorretik Euskal Herriko egoerara salto eginez.

Argi daukagu zure hitza eta ekintza behar ditugula norbanakotik hasi eta kolektiboa indartzeko. Beraz, ez izan dudarik eta animatu! Gazteok herria zukgutzea goaz!

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Lasarte-Oriako Gazte Zukgura

Harkaitz Cano Idazlea

“Askatasuna emango dit sariak”

2012. urteko nobela onenaren Euskadi Saria eman diote Harkaitz Cano idazleari 80. hamarkadan kokatzen den “Twist” nobela otsailean argitaratuko da gaztelera

2012ko Euskadi saria jaso zuen urriaren 31n Harkaitz Canok. “Twist” izendatu dute aurtengo euskal nobela onena. Ilusio pixka bat eragiten dio idazleari Txintxarriren deia jasotzeak, bere ume eta gazte garaietako Lasarte-Oriarekin lotura erabat eten ez dela jakiteak. Beti bezain jator eta adeitsu erantzun die gure galderei saria jaso ondorengo egunotan.

Jon ALTUNA IZA

Batetik bestera dabil, Harkaitz Cano, toki batetik bestera, nobelatik ipuinerara, irratiatik komikira, elkarrizketatik hitzaldira, batetik bestera, nekatuta, baina gustura eta ohi bezala, atsegina izan da gure galderei erantzuten. Aspaldi idatzi zuen “Twist” nobela, 2011ko azaroan argitaratu zen, baina azken asteotan ere presente izan du, “gaztelerrara itzuli duelako orain Gerardo Markuletak eta bion artean errebisatzea eta berrirakurtzea tokatu zaigulako, batetik hori eta bestetik literatur txoko eta solasaldi dezentetik deitu didanenez, behin eta berriro nabil dantza beraren inguruan” kontatu digu Donostiatic Harkaitz Cano idazleak.

Nolakoa izan da “Twist” idatzi zenuenetik, sari hau jaso arteko ibilbidea? Nolako feed back-a izan duzu?

Nire aldetik gehiago ezin dut eskatu. Hasieratik sumatu dut jendearen aldetik beste batzuetan baino interes edo inplikazio handiagoa, 80. hamarkada oso presente daukaten belaualdiek asko komentatu dute beretik. Alde horretatik asko eman didan liburua izan da.

Sarituaz izateak pozten al du idazlea?

Bai. Egia da sariak eta literatura bi gauza oso bereziak direla eta elkartzen direnean kasualitate kontua izaten dela.

Badago sariarekiko mesfidati sentitzen denik, batzuetan baliteke saria bera libre idazteko traba bezala sentitzea inork. Javier Mariasek uko egin dio Espainiako sari nazionalari.

Nire kasuan, nire bizimoduak, askoz ere xumeagoa izanda, nik uste, saria gehiago dela askatasuna erosteko modu bat, kontrakoa, nik hurrengo urtean hilabete batzuetan nahi dudana idatzi ahal izango dut. Alderdi materiala ere ez da gutxietsi behar.

Gaztelera noiz aterako da?

Otsailean argitaratuko da, Seix Barral-ek aterako du.

Eta beste hizkuntzaren batera itzuliko al da?

Momentuz ez dago ezer konkreturik, orain ari dira irakurtzen nobela hainbat lekutan, gazteleraz eduki arte zaila izaten da hori, normalean kanpoko argitaletxeek ez daukate eta euskarazko irakurlerik. Gure artean bada eztabaida zubi hizkuntza ingelesak izan beharko ote lukeen edo ez, baina momentuz zubia gaztelera da.

Urteko euskal nobela onena izendatu dute “Twist”, zuri gustatu al zaizu aurten irakurri duzun beste nobelaren bat?

Joxean Agirrearen “Zwei Frauen” adibidez asko gustatu zitzaidan eta gehiago ere bai. Azken finean, subjektibitate handiko erabakiak izaten dira. Eta komeni da



Harkaitz Cano, Lasarte-Orian, aurtengo martxoan.

hori gogoratzea saria ematen dizutenean eta ematen ez dizutenean ere bai. Bietan.

2005ean Belarraren Ahoa sari-tu zuten, errealitate eta fikzioaren arteko mugan ondo moldatzen zarela dirudi...

Lotura hori ez nuen inoiz egin, baina egia da. Hura fantasiatik gehiago zeukan fabula bat zen. Kasu honetan, errealitatea azpimarratzeko erabilten da fikzioa. Fikzioa izan daiteke ihesbide bat, baina baita zati errealarari indarra emateko modu bat.

Durungoko Azokarako ezer berrik ez daukazu, ez al da arraroa?

Ez da lehenengo aldia, izan dira ezer eraman ez dudana urteak.

Dena den, egia da, helduentzat liburu bat ez bazen haurrentzako bat egiten nuela, edo komiki bat...

“Bada sariarekiko mesfidati sentitzen denik. Javier Marias-ek uko egin dio Espainiako Sari Nazionalari

Baliteke batzuetan saria bera libre idazteko traba bezala sentitzea inork.

Nire kasuan kontrakoa da, askatasuna erosteko modua, hurrengo urtean hilabete batzuetan nahi dudana idatzi ahal izango dut.

Aurten Edo! argitaletxe berriarekin badaukat hitzalditxo bat argitaratzeko aukera, baina seguraski hurrengo urtean aterako da.

Txaloari buruzko hitzalditxo bat eman nuen Gasteizko Artium-en, duela bi urte edo gehiago: txaloaren ekintza, txalotua izatea, lausenguak jasotzea, laudorioekin ere hil zaitzaketa eta abarretik tiraka formatu txikiko liburuxka bat aterako du Edo! argitaletxeak. Baina fetxa zehatzik ez du, hurrengo urtean seguraski.

Bestela zertan zabilta?

Ziklo hau ixteko bide horretan. Nobela labor bat erdi idatzia daukat. “Twist”-ekiko oso diferentea, fartsa bat izango da, disparte umoretsua izan nahiko luke, gezurti konpultsibo baten istorioa da, gezurrak kontatu, damutu eta gero bere gezur txikiak egi bihurtzen dituen damuaren ondorioz, hori da ideia.

Zinematik hurbil ibiltzen zara normalean...

Aspaldi honetan ez. Komikian jarraitzen dut, album bat bukatuta daukagu, Iñaki Holgadoarekin Xabiroi aldizkarian argitaratu zen “Zebra efektua”. Hau ere 2013an aterako da seguraski. Eta beste bat egiten ere bagabilta. Zinean, proiektu asko erdi bidean gelditu dira eta momentu honetan bide hori baztertuago daukat. horrelako “impasse” batean gaude.

Harkaitz Cano, “Twist” azken nobelaren aurkezpenean, iaizko azaroan

HITZEN UBERAN



Elkarrizketa oso osorik txintxarri.info webgunean

“Sariarena subjektibitate handiko erabakia da eta komeni da gogoratzea ematen dizutenean eta ematen ez dizutenean ere bai. Bietan

“Nobela labor bat erdi idatzia daukat. Oso diferentea, disparte umoretsua izan nahiko luke, gezurrak kontatu, damutu eta gero bere gezur txikiak egi bihurtzen dituen pertsona baten istorioa